



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica



**GETXO UDALERRIAN 2022an ENPLEGUA SORTZEA SUSTATZEKO ENPRESENTZAKO DIRULAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAKO DEIALDIA. DIRULAGUNTZA HORIEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO JARDUERETARAKO LANBIDE – EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN LAGUNTZEN DEIALDIKOAK DIRA (2022-05-20).**

<b>Helburua</b>	Kontratu finkoetarako laguntzak: lanaldi osoan edo partzialean aritzeko eta Gizarte Segurantzako araubide orokorrean.
<b>Dirulaguntza jaso dezaketen kontratuak:</b>	Laguntza horiek jaso ditzaketen kontratuak dira <b>2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko ekainaren 30era</b> hasitakoak. Kontratuak mugagabeak izango dira, eta lanaldi osokoak edo partzialekoak izan ahalko dira, gutxienez lanaldiaren % 50ean.
<b>Dirulaguntzaren zenbatekoa:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ <b>Gehienez ere 8.000 euroko laguntza</b> emango da lanaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko. Laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen %75, enpresa kontratatzailearen kontura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.</li> <li>➤ <b>Gehienez ere 10.000 euroko laguntza</b> emango da lanaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko, honako kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen direnean: DSBEn onuradun, titular edo jasotzaileak; 35 urtetik beherakoak; iraupen luzeko langabeak; edo 55 urtetik gorako pertsonak. Kasu honetan, laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 100, enpresa kontratatzailearen kontura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.</li> <li>➤ Bestalde, % 50eko baino gehiagoko lanaldiko kontratu mugagabeen kasuan, dirulaguntza (laguntzaren gehieneko zenbatekoa) lan egindako denborarekin proportzionala izango da.</li> <li>➤ Zenbateko guztiak <b>% 10 gehituko dira</b> emakumeak kontratatzen direnean. Dirulaguntzaren azken zenbatekoak, igoera horiek aplikatzean, ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 100, enpresa kontratatzailearen kontura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne</li> </ul>
<b>Enpresa edo erakunde onuradunak</b>	Enpresak, saltokiak, profesionalak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, elkarteak eta fundazioak, betiere lantokia eta jarduera ekonomia Getxon badituzte.
<b>Betekizunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontratu beharreko pertsonak Getxon egon beharko dira erroldatuta, gutxienez lan-harremana hasi aurreko egunean.</li> <li>• Kontratu beharreko pertsonak langabeak izan behar dira eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa alta emanda egon beharko dira, gutxienez kontratua hasi aurreko egunean.</li> <li>• Kanpoan geratzen dira honako pertsona hauen lan-kontratazioak: aurreko deialdietan pertsona horiek</li> </ul>



# Getxo

*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica



	<p>kontratatzeagatik enpresa berberean jadanik laguntza jaso dutenak.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Kontratazioen bitartez, enplegu garbia sortu beharko da diruz lagunduko den kontratua izango duten pertsonak sartu baino sei hilabete lehenago enpresan zegoen batez besteko plantilla osoaren gainean.</li><li>• Enpresa bakoitzeko bi kontratu diruz lagunduko ahalko dira gehienez.</li></ul>
<b>Eskariak aurkezteko epea</b>	2022ko abenduaren 27tik 2023ko otsailaren 7ra
<b>Eskariak aurkeztea</b>	<input type="checkbox"/> Telematikoa: <a href="http://www.getxo.eus">www.getxo.eus</a> <b>Administrazio Elektronikoko Bulegoa</b> (AEB. Administrazio Elektronikoko Bulegoa, Nire kudeaketak etxetik -> Nire erregistro telematikoa -> Eskera egin -> Idazpen-eredua -> Getxoko Udala = Getxoko enplegurako laguntza-eskera, 2022)
<b>Deialdia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa:</b>	<input type="checkbox"/> BAO, 2022ko abenduaren 26koa <input type="checkbox"/> Ekonomia Sustapena. <a href="https://www.getxo.eus/eu/promocion-economica">https://www.getxo.eus/eu/promocion-economica</a>
<b>Helburu bereko laguntzekin bateragarritasuna</b>	Deialdi honetan araututako laguntzak honako hauekin ez dira bateragarriak izango: kontzeptu eta helburu beragatik administrazio edo erakunde publiko eta pribatuak emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntza lortzearekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariak salbu (betiere kostua gainditzen ez bada).
<b>Dirulaguntza emateko modua</b>	Eskariak aurkeztutako hurrenkeran, betiere behar bezala beteta badaude eta espedientea osatuta badago, Getxoko Udaleko aurrekontuetan xede horretarako kontsignatutako aurrekontu-kredituaren mugaraino (167.433,190 euro).
<b>Ordaintzeko modua</b>	Bi ordainketa: Eskumena duen organoak ematen dituen laguntzak ebatzi ondoren, % 70. Gainerako % 30a, egiaztatzen denean diruz lagundutako kontratazioko baldintzak betetzen direla.

Hizpide ditugun laguntzak Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2022ko maiatzaren 13ko Ebazpena oinarri hartuta, 2022ko ekitaldian Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetarako Laguntzen Deialdiari buruzkoa (2022-05-20ko EHAA).